

PRENTSA OHARRA

Espanian, DBHko 30 ikasle 6k beren hezkuntza etorkizuna baldintzatuko duten gabezia ekonomiko larriak dituzte, Adsis Fundazioaren arabera

- *Adsis Fundazioa GKEak egindako “Desberdintasun ikusezina” azterlanak DBHko ikasleak aztertu ditu Espainian, bigarren aldiz*
- *Txostenak erakusten du errendimendu akademikoa %24 baxuagoa dela gizarte bazterketa arriskuan dauden ikasleengan*
- *Horrek esan nahi du %2,6 gazte gehiago daudela gizarte bazterketa arriskuan, 2013arekin alderatuta*

Adsis Fundazioak nerabeen inguruan egindako bigarren azterlanak, “Desberdintasun ikusezina” izenekoak, **Espania osoko 3.000 ikasle** ingururen parte hartzea biltzen du. Bertan, jakitera ematen da DBHko 30 ikasleko gela batean 6 ikasle gabezia ekonomiko larriak dituztela, eta horrek beren hezkuntza etorkizuna baldintzatuko duela. Ustekabekoak ordaindu ezin dituzten familietan bizi diren nerabeak dira (%82), oporrik ez dutenak (%82), neguan hotza pasatzen dutenak etxean (%77) eta haragia edo arraina astean hirutan behintzat jaten ez dutenak (%69). 2013arekin alderatuta, gabezia ekonomiko larriak dituzten nerabeen kopurua **%2,6 igo da**.

“Desberdintasun ikusezina” txostenaren xedea krisiak gehien kaltetutako belaunaldietako baten egoera ezagutzea da, beren beharrei hobeto erantzuteko eta baita sufritzen duten laguntza faltaren inguruan gizarte sentsibilizatzeko. Nagusiki, txostenaren ardatza gizarte bazterketa arriskuan dauden nerabeen (GBA) eta gainerakoen arteko (GBA EZ) desberdintasunak erakustea da. Desberdintasun hauen ondorioz, GBA duten nerabeengan eskola-emaitzak %24 baxuagoak dira, eta haien autoestimua ere baxuagoa da. Faktore horiek haien hezkuntza etorkizuna baldintzatuko dute.

Desberdintasun esanguratsuenetariakoak ikasteko ingurunea eta eskolaz kanpoko baliabideak lortzeko sarbidea dira. Ikasteko inguruneari dagokionez, GBAn dauden ikasleen %30ek beren etxean bizitzea erraza ez dela esaten dute, eta %32k etxean ikasteko eta etxeko lanak egiteko lasaitasun nahikoa ez dutela diote. Eskolaz kanpoko heziketari dagokionez, GBAn dauden ikasleen %25 gutxiagok egiten dute eskolaz kanpoko heziketa, eta %26k ez daukate interneterako sarbiderik etxean.

Ondorioz, GBAn dauden nerabeen eskola emaitzak %24 baxuagoak dira, eta horietariko %56k 3 ikasgai edo gehiago suspenditu dituzte azken ebaluazioan. Gazte horiek bere inguruak gutxiago baloratzen eta laguntzen dituela sentitzen dute DBHko

gainerako ikasleen aldean eta, hortaz, autoestimu baxuagoa daukate. GBAn dauden gazteen %21ek ez daukate baliotsutzat euren burua, eta nerabe hauen artean, %23 ez dira beren helburuak lortzeko gai ikusten.

“Datu hauek erakusten dute nerabeen arteko desberdintasunek beren hezkuntza etorkizuna baldintzatuko dutela eta, horregatik, nerabe ahulenek gainerakoek baino aukera gutxiago eta zailtasun gehiago izango dituztela”, adierazi du Carlos Melgarrek, Adsis Fundazioko zuzendari orokorrak.

“Desberdintasun ikusezina” txostena 2013an Adsis Fundazioak egindako “Etorkizuna gaur hasten da” azterlanaren jarraipena da, eta bertan, bigarren hezkuntzako 27 institutu publikoetan DBH ikasten duten 2.860 nerabek parte hartu dute. Z belaunaldiaren zati dira, 1994 eta 2010 urteen artean jaioak, eta 2013an aztertutako ikasleak bezain baikorrak dira gizartearen etorkizunari dagokionez. Inguru nagusiki permisiboetan garatu dira (%52k muga gutxi dituzte etxean), errealistagoak dira (%37, 2013ko %10aren aldean) eta beren helburuak lortzea zaila izango dela uste dute (%71k), baina nahi dutena lortzeko erantzukizun eta ahaleginaren balioetan konfiantza daukate (%88 beren helburuak lortzeko ahalegintzeko prest daude). Ikasle gehienek (%57) autonomia euren ekintzen erantzule izatearekin lotzen dute.

Adsis Fundazioak txostenaren baitan hezkuntza eta gizarte arloko zenbait proposamen plazaratu ditu, GBAn dauden nerabeen hazkuntzan aritzen diren eragileen artean elkarriketa eta hausnarketa eragiteko.

Adsis Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da eta 49 urte baino gehiago daramatza lanean, gizarte bazterketa arriskuan dauden gazteek aukera izan dezaten pertsonalki eta profesionalki garatzeko. Fundazioak eskola-porrota eta langabezia gainditzeko behar dituzten konpainia, baliabideak eta tresnak ematen dizkie.

**(ATXIKITA DOAZ “DESBERDINTASUN IKUSEZINA” AZTERLANAREN
INFOGRAFIA ETA PDFA)**

Argibide gehiagorako, hona jo:
Esther Amor, Adsis Fundazioa
Tel. 917 267 403
616 155 404

esther.amor@fundacionadsis.org
www.fundacionadsis.org
www.desigualdadinvisible.org